

# **ELEANIZTASUNAREN TRATAERA**

## **IKASGELAN**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILETZA: María Puente Pascual**

**ZUZENDARIA: Urtzi Reguero Ugarte**

**2018-2019**

## **LABURPENA**

Lan honen helburua ikasgela barruan eleaniztasunari zer nolako trataera ematen zaion aztertzea eta horri erantzuna emateko estrategiak garatzea izango da. Hasteko, ikaslegoaren ama hizkuntza mantentzearen eta hauen inguruko abantaila eta desabantaila buruzko ikerketa bibliografikoa egingo da, marko teoriko batean kokatuz. Jarraian, Practicum ezberdinetan hizkuntza ezberdinei ematen zaien garrantzia eta banaketa behatu da eta hiru agente ezberdinei egin zaien elkarrizketaz baliatuz gai honen egoera gaur egun eskoletan nola dagoen behatuko da, baita ematen diren aurrerapausuak ere. Ondoren, egunerokotasunerako esku hartze baten proposamena plazaratuko da, ikasleen ama hizkuntza mantentzeari eta lantzeari egokituta. Emaizetan, diagnostikoaren eta proposamenari dagozkion atazak plazaratuko dira, helburuak betetzen diren ala ez ikusiz. Azkenik, eleaniztasunaren trataeraren inguruan hausnarketa eta hobekuntzak proposatzen dira.

Hitz gakoak: Eleaniztasunaren trataera, H2ren jabeakuntza, Ama hizkuntzaren presentzia.

## **RESUMEN**

El objetivo de este trabajo es analizar el tipo de tratamiento que reciben las diferentes lenguas maternas de los alumnos y desarrollar unas estrategias con el fin de darle una respuesta. En primer lugar se hará una investigación bibliográfica sobre cómo mantener las lenguas de origen en el aula con sus pros y sus contras, estableciéndose dentro de un marco teórico. A continuación se hará una observación a partir de los Practicums realizados hasta ahora sobre el tratamiento que se les daba a las distintas lenguas dentro del aula y su distribución, y se realizarán tres entrevistas a tres agentes diferentes sobre la situación de las lenguas en los colegios hoy en día y los procedimientos que se llevan a cabo. Después se propondrá una rutina como intervención dirigida a trabajar y mantener la lengua materna de los alumnos. En los resultados se expondrán las tareas que desempeñan el diagnóstico y la propuesta con el fin de ver si se podrían cumplir los objetivos. Finalmente se reflexionará y se expondrán propuestas de mejora acerca del tratamiento de la diversidad de las lenguas.

Palabras clave: Tratamiento de la diversidad de lenguas, hegemonía de las segundas lenguas, presencia de la lengua materna.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera eta justifikazioa.....	4. orr
2. Marko teorikoa.....	4. orr
2.1. Identitatea.....	7. orr
2.2. Eskubidea.....	9. orr
2.3. Psikolinguistika.....	9. orr
3. Helburuak.....	12. orr
a. Helburu orokorrak.....	13. orr
b. Helburu espezifikoak.....	13. Orr
4. Metodoa.....	14. orr
4.1. Parte-hartzaileak eta testuingurua.....	14. orr
4.2. Tresnak.....	15. orr
4.3. Prozedura.....	16. orr
5. Emaizak.....	16. orr
5.1. Diagnostikoaren emaitzak.....	16. orr
5.2. Diseinua .....	19. orr
5.2.1. Gelan egiteko ariketak .....	20. orr
5.2.2. Irakasleen aldetik .....	23. orr
6. Ondorioak eta hobekuntzak.....	24. orr
7. Bibliografia.....	32. orr
8. Eranskinak.....	34. orr

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Azterketa honen xedea da Lehen Hezkuntzako ikasleen ama hizkuntzaren trataera ikasgelan behatzea, moldatzea eta garrantzi gehiago ematea. Hori horrela izanik, corpusa ulertzeko hainbat eduki teorikoen gainean oinarrituko da, batez ere, ardatz moduan izateko eta ulertzeko emango diren hipotesiak, aurrerapausoak eta proposamenak.

Graduko azken urtean *Hizkuntzen Trataera Bateratua* minorra burutu eta gero, hainbat ideia eta kontzeptu nahasi geratzen zitzaizkidan. Horietako bat, ume etorkinen ama hizkuntzarekin zer egiten zen jakin nahi nuen. Kurtsoan zehar ikusi egin ditugu onura handia dakarrela ama hizkuntzaren jarraitasuna eta garapena bigarren hizkuntzaren jabeakentzarako, marko teorikoan ikusiko den bezala, baina, horrez gain hizkuntza minorizatu hauekiko baliabide eta esku-hartzerik ez zegoela behatu ahal izan nuen.

Horregatik beragatik, ama hizkuntzaren trataera xede izanda horren garapenerako jarrerak behatzea eta proposamen bat egiteko aukera aparta moduan ikusi nuen lan hau. Honekin guztiarekin, lehen esan bezala, ikaslegoaren ama hizkuntzari garrantzi handiagoa ematea izango du helmuga.

## 2. MARKO TEORIKOA

Askotan, ikasleen ama hizkuntzari buruz jarduten denean, hiru eledunak diren eskoletan ardaizten da elkarriketa, bertan ama hizkuntzaz at, bestelako hizkuntzak txiki-txikitatik bereganatzeko aukera izaten dutelako. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan aurkitzen den hizkuntza paisaia, estatus handiena dutenak gaztelania, euskara eta ingelesa dira. Honen isla da Euskal Autonomia Erkidegoan euskal hiztunak 298.622, gaztelania hiztunak 1.671.538, elebidun orekatuak 163.378 eta bestelako hizkuntza hiztunak 46.277 dira. Azken hauen artean ingelesa kokatzen delarik. (Eustat, 2011). Hizkuntza paisaiei dagokionez, ezin dira ahaztu Euskal Autonomia Erkidegoan hiru hizkuntza horietatik at elkarbizitzen diren beste hainbat hizkuntza minorizatuak, hala nola, etorkinen H1ak. Azken hauek, Unesco Etxeak Hego Euskal Herrian egin zuen ikerketa baten arabera, 2007an 108 hizkuntza dira. Hori kontuan izanda, Euskal Herriko Ahotsak (2016), 101L proiektua martxan jarri da Donostialdean hitz egiten diren hizkuntza kopurua adierazteko asmoz. Hizkuntzak jasotzeaz gain, immigrazioa eta emigrazioari buruzko esperientziak eta iritziak jasotzen ari dira, gai honi begirada zabalago bat ematearren.

Immigrazioari buruz hitz egiteko datuei erreparatu behar zaie (Eusko Jaurlaritz, 2016). Gaur egun, EAEn dagoen egoera orokorra oso berdintsua da hiru probintzietan, izan ere, hiriburuetan da immigrazio kontzentrazio gehien dagoen esparrua, bertan, EAEn atzerriko jatorriko populazioaren bizilekuen %68,2a hartzen baitute: Bilbon (%37), Vitoria-Gasteizen (%16,1) eta Donostia-San Sebastianen (%15,1).

Eskualde barruko banaketari dagokionez, aipatzekoa da Araban eta Bizkaian eskualde bakar batean ardaizten dela, bakoitzak populazio immigratearen %87,1a eta %76,3a hartuz. Gipuzkoa izan da hiruren artean populazio banaketa deszentralizatua daukan eskualde bakarra. Izan ere, lau eskualde ezberdinetan sakabanatzen delako, Bidasoan, Goierrian eta Urolako kostaldean, nahiz eta Donostia den populazio immigrante handiena daukan hiria, %45,8 batekin. Bestalde, sexu-banaketari dagokionez, emakume eta gizonen arteko desberdintasun handirik ez dago, baina, nahiz eta orekatuta egon, Bilbon eta Plentzian emakume etorkinen kopurua altuagoa da etxe-lanen eskaria altuagoa izaten delako eta, bestalde, Markinan gizon etorkinen kopurua handiagoa izaten da neskezarritza edota arrantza lanpostuen eskaria handiagoa delako.

Latinoamerikako jatorria duten pertsonak izaten dira gehienak, Errioxan izan ezik, bertan, magrebtar jatorria duten pertsonak hartzen dute etorkinen kopuru handiena. Gasteizko ereduari erreparatuz, jatorri ezberdineko populazioa anitz badago. Datuei erreparatzean honelako grafikoa aurkezten da (Eusko Jaurlaritz, 2016):

Maroko	Kolonia	Frantzia	Brazila	Argentina	Paraguay	Txile	Errumania	Bolivia	Ekuador	Portugal	Arjelia	Pakistan	Peru	Bestelakoak
14,7	12	2	3,4	2,2	3	2,5	4,6	2,1	4,4	4,4	6,5	4,8	3	30,4

Informazio guztiarekin paisai soziolinguistiko aberatsa ikusten da, baina jatorri desberdineko eta ama hizkuntza desberdineko etorkinak izanik, aztertu beharra dago zer nolako trataera ematen zaien beraien ama hizkuntzei eskolan. Izan ere, hainbat autore saiakerak aztertu eta ekoiztu dituzte eskola eleaniztunetan, baina informazio gutxi aurkitzen da hezkuntza kulturantzunetarako egokituta.

Gaur egun munduko edozein tokira hurbildu gaitzke ikasgeletatik baina, tamalez, ikasgelan dauden hizkuntzak, eskolako egunerokotasunean eta beraien bizitzan ez dute inolako presentziarik izaten. Ikasleak etxera bueltatzen direnean, ikastetxean ez da ikusten kulturantzutasunaren ebidentziarik. Horregatik, aipatu beharra dago, ikasleek

adituak izan nahi badute ikastetxearen hizkuntzan eskola-arrakasta izateko, beraien jatorrizko hizkuntzak rol aktibo bat izan behar dutela.

Horretarako, Banks-ek (1989), *hurbilketak* izeneko integrazio kulturantzaren inguruko lau maila ezberdin identifikatu zituen. Lehenengoa kontribuziozkoa zen. Honetan, inklusioa egun berezietara edota pertsonaia historikoetara mugatzen dute. Hau hurbilketa errazena da, izan ere, curriculumak ez da aldatzen baina ikasleek ez dute garatzen ikuspen global bat talde etniko eta kulturalengan.

Bigarrena, bateratzailea da. Hau liburu bat, bideo bat edota eduki kulturantzaren daukan kurtsoren bat curriculumera gehitzean datza. Honek ere, lehenengoa bezala, hainbat desabantaila erakusten ditu, hala nola lantzen diren kontzeptuak aukeratuak izaten dira kultura gehien ikuspuntutik. Adibidez: Mundu Berriaren aurkikuntzari buruz hitz egiten denean, beti inbaditzaileen ikuspuntutik lantzen da, ez bertan bizi ziren herri indigenen ikuspuntutik. (Coelho, 2013)

Hirugarrena, eraldatzailea da. Honek curriculumean aldaketa bat egiteari egiten dio erreferentzia, horrela, ikasleek kontzeptu eta arazo ezberdinei buruz hurbilketa kulturala baten ikuspuntutik eztabaidatu ahal izango dute. Hurbilketa honetatik, kultura gehigarriak, hau da, bizi garen eskualdera datozen pertsonen kultura eta hizkuntza desberdinak, beste kulturak bezalako planoan garatzen da, hobeto esanda, hauetako beste bat da.

Azkenik, laugarrena ekintza soziala da. Honetan, lehenago aipatu diren elementu guztiak hartzen dira bere baitan, baina ikasleek arazo eta gai kulturantzaren erabakiak hartzeko eta hauetan parte hartzeko gaitasuna gehitzen dira. Kritika sozialean hezteak da hurbilketa honen xedea, horregatik metodo tradizionalarekin talka egiten du, non ikasleak horrelako gaietan jarrera pasiboa hartzen duten.

Nahiz eta 60ko hamarkadatik esperimendu diren, H1 (ama hizkuntza) mantentzeko eta garrantzia emateko ezer ez da aurkitu esperimendu horietan. Horregatik, Cummins-ek (1981) aipatzen du alferrik galtzea nazioaren errekurtso linguistikoak, umeen ama hizkuntzaren garapena etsiarazten, nazioaren interesetatik begiratuta, adimen gutxiko ekintza dela, eta, umeen eskubideen haustea errepresentatzen duela dio.

lido beretik jarraituz, murgiltze programen nondik norakoak aztertu beharreko gauza dira, izan ere, hemendik hasten direlako H1 mantentzeko saiakerak. Mantentze programak, hizkuntza gutxitua instrukzio hizkuntza bezala erabiltzen da. Kasu honetan, hizkuntza gutxitu honek, modu eksklusiboan erabiltzen dela esan dezakegu, izan ere, ikastetxea testuinguru bakarra da non ikasleek aukera daukaten hau ikasteko eta

erabiltzeko. Gasteizko kasuan euskararekin gertatzen den isla da hemen aipatutakoa, hain zuzen. Beste kasuan, H2 gaztelania duten umeekin ikerketa egin da. Ibon Manterolaren hitzetan (2009), D ereduaren eskolatuta zeuden 5-8 urteen arteko bi talderi (H1 gaztelania eta H2 gaztelania zutenei) ikerketa egin eta gero, 5 urterekin gaztelania H1 zuten umeak ipuin kontaketa batean, iraganean kokatzeko ezberdintasun handia ikusten zen, izan ere, H2a gaztelania zuten umeek ez ziren gai ezta ipuina beren kabuz hasi eta bukatzeko, H1a gaztelania zuten umeak iraganean hasi eta iraganean ipuina mantentzea lortzen duten heinean. 8 urterekin, balantza orekatzen da baina H1a duten umeek pluskuanperfektu aditzak (beste batzuen artean) erabiltzen dituztela ikusi ahal izan zen, H2a duten umeek, aldiz, ez dute ikerketa honetan hori lortzen. Bi prozesuek parekatzeko joera izan dezakete haurtzaroan aurrera egin ahala baina, emaitzetan ikusi ahal denez, parekotasunik ez dago ikerketa honetan.

Programa horiek badaukate jada eskarmentua ikaslegoaren hizkuntza familiarren trataeran, baina oraindik pentsatu beharra dago nola ezagutu ahal diren bestelako hizkuntzak, eskolan dituzten hizkuntz-aniztasunari erreparatuz, hain zuzen.

Iraganean, hizkuntza gutxitua zuten ume asko hori alde batera uztera bultzatu zituzten, eskolako hizkuntza ikasteko eta hau modu eksklusiboan erabili ahal izateko. Horrela, bigarren hizkuntzaren hobekuntza sustatzen zela aipatzen zen. Alabaina, elebitasunak edota eleaniztasunak kognitiboki onurak dituela ebidentzia ugari daude. (Dekeyser, 2000)

## **2.1. IDENTITATEA**

Urte askoan pentsatu da elebidun izatea kaltegarria zela, baina 60ko hamarkadatik aurrera uste hori indargabetu da, eta frogatu da elebidun izateak ez diola adimenari inolako kalterik eragiten, horregatik, gaur egun, pil-pilean dagoen gai bat hizkuntzen jabekuntza izanik, gizarteak oro har, badaki zenbat eta hizkuntza gehiago jakin orduan eta lan-aukera gehiago egongo direla. Horrek ikasle elebikarrei motibazioa eragin dakieke, batez ere beste hizkuntza bat ikasteko momentuan, normalean izaten duten gogo handiagoz. Horrekin lotura, beraz, oso motibagarria izan daiteke irakaslearen jarrera ere. Irakasleak hizkuntzekiko jarrera egokia badu, transmititu dezakelako.

Jatorri atzerritarra duten pertsonentzat, ikastetxean haien hizkuntzaren errekonozimendu positiboak, animatu egiten ditu beraien hizkuntza ikasten jarraitzera, eskolan beste hizkuntza bat ikasten duten bitartean. Azken hau funtsezkoa da, izan ere, pertsona bakoitzaren ama hizkuntza identitatearen eta kulturaren oinarritzko puntu bat

izan daiteke, eta, horrez gain, familiarekin erlazio ona izateko ere funtsezkoa da. (Coelho, 2013)

Gainera, H1an ezagutza garatzeak, oinarri batez hornitzen du ikaslea. Honekin, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza prozesua arrakastatsua izango da eta gaitasun kongnitiboak handiagotuko ditu. (Cummins, 1983)

Ikasleen identitateari dagokionez, lehen aipatu den bezala, haien ama hizkuntza balore kulturalaren eta autoestimua iturria da. Irakasleen eta gainerako ikasleen balorazio positiboa beraien hizkuntzarekiko, beraien errendimendu akademikoari eragin ahal dio oso modu positiboan (Coelho, 2013). Askok, The National Centre of Languages (2006) dioenez, elebitasuna malgutasun eta sofistikazio ezaugarri bezala ikusten dute eta horrek elebitasun gehitzailea suposatzen du.

Aitzitik, ama hizkuntzei dagokien garapena eta hauenganako sostengu faltak, efektu negatiboak izan ditzake, batez ere, ikasleen eskola-errendimendurako baita beraien autokontzepturako ere.

Badaude ikasle batzuk zeintzuk ez duten beraien hizkuntza alde batera utzi nahi eta, horregatik, eskolan erakusten zaien H2a ez duten ikasi nahi izango. Beraien autoestimua ere arriskuan egongo litzateke bigarren hizkuntzak beraiena baino estatus handiagoa badu. Horregatik beragatik, asko beraien talde bereko pertsonekin mugituko dira soilik, bestelako pertsonekin kontakturik izan gabe.

Beste ikasle batzuk, beste era batera erantzun dezakete, beraien kultura eta hizkuntza familiarra alde batera utziz, kultura nagusiari egokituz eta horrela, beraien identitate kultural originala baztertuz. (Coelho, 2013)

Laburbilduz, hezkuntza elebidunaren barruan hiru programa bereiz ditzakegu: mantentze, murgiltze eta aspirazio programak. (Bilbao, 1998)

Mantentze programetan, irakaskuntza ama hizkuntzan ematen denez, haurrak mantendu egiten du etxeko hizkuntza (gutxitua) eta eskolan gizartekoa ere ikasten du. Hau da, umearen ama hizkuntzan ematen da, ama hizkuntza gutxitua duen umearentzat. Ondorioz, emaitza elebitasuna da.

Murgiltze programetan, irakaskuntza bigarren hizkuntzan ematen da, ama hizkuntza ere kontuan izanik. Horregatik, haurrak bigarren hizkuntza ikasten du eskolan, etxekoa (gehiengoarena) galdu gabe; hemen ere, emaitza elebitasuna da.

Azpiratze programetan, irakaskuntza hizkuntza nagusian ematen da, hau da, hizkuntza gutxitua ez da kontuan hartzen eta, ikasgela barruan soilik hizkuntza ofiziala izaten du



kabida. Ondorioz, haurrak bigarren hizkuntza (gehiengoarena) ikasten du eskolan, etxekoa (gutxitua) baztertuz. Honetan, elebitasun menperatzailea sortzen da.

Horregatik beragatik, garrantzitsua da ikasle guztien H1ak bermatzea; gehiengo hizkuntza erabiltzen duten ikasleengandik oreka sortuz eta, bide batez, ikasleak ikastetxeko hizkuntzan gaitasuna bereganatzeko motibazioa daukatela ziurtatuz.

## **2.2. ESKUBIDEA**

Pertsona bakoitzak garatu ahal du bere ama hizkuntza nahi duen herrialde edota eremu geografikoan. Honen isla da Giza Eskubideen deklarazioan (1948) plazaratzen den ideia, 27. Artikuluan, pertsona bakoitzak eskubidea dauka bizitza kulturalan baita komunitatean parte-hartzaile askea izateko, baita 29. Artikuluan dioen bezala, pertsona orok garatu ahal du libreki bere pertsonalitatea.

Hizkuntza familiarrak errekonozimendu txikia jasotzen badu ikastetxetik, ume batzuek azkar baztertuko dute eta H2 eskolan bakarrik erabiltzeaz gain, familiarekin ere erabiliko du, nahiz eta gurasoek H1an egin beraien seme-alabei.

Denbora pasa ahala, ume horiek zailtasunak izan ohi dituzte H1an ideiak plazarateko edota elkarrizketa bat izateko. H1 honen menperatze faltak efektu negatiboak sortu ahal ditu bai familia barruko erlazioetan, baita beraien talde kulturalaren kideekin ere.


Horregatik, H1era heltzeko aukera izatea eskubide bezala aurkeztu beharko litzateke. Izan ere, EEUUn, ume indigenek gehiengoaren hizkuntza ikastea goraiatzen dute, eta honek, arrakasta eskolarra izatearen teorien kontrakoa da, izan ere, haien hizkuntza baztertu eta horregatik gutxitzeaz gain, transferentzia ez delako ematen. Teoria horiek, hezkuntza eskubideak bermatzen dituzte, eta horrela, H1aren garrantzia eta presentzia eskolan. (Skutnaab-Kangas eta Dunbar, 2010)

Horrez gain, aipatzekoa da elkarrizketak izatea guraso eta seme-alaben artean garrantzi handiko praktika dela, horrela, gurasoek haien kultura transmititzen diete umeei. Familiek gaitasun hau galtzen dutenean, zatiketa gertatzen da eta familiek atal hori galtzen dute, tamalez. (Fillmore, 1991)

## **2.3. PSIKOLINGUISTIKA**

Psikolinguistikari dagokionez, Jim Cumminsek (1983) eredu bat proposatzen du, trebetasun akademikoaren trebetasunerako, hezkuntza elebidunarekiko hain zuzen,


ikaslegoaren beharretan oinarrituta eta aldamiaje kantitatearen beharra behatuz. Horretarako, eredua lau koadranteetan egituratu zuen.



Ardatz horizontalak, *testuinguru integratua/testuinguru murriztua*, ematen den aldamiaje kantitateari egiten dio erreferentzia. Ezkerreko muturrean, bigarren hizkuntza testuinguru familiar batean ikasten dute eta bere ulermena, aurrez aurreko interakzioaren bidez, ikuste-zeinuen bidez eta hizkuntzaren sinplifikazioaren bidez, beste batzuen artean, ematen da. Beste muturrean, berriz, esanahiari sarbidea hizkuntzatik eta hizkuntzaren zehar egiten da.

Ardatz bertikalean, *eskaera kognitibo baxua/eskaera kognitibo altua*, aktibitate eskolarrak behar dituzten prozesamenduei egiten dio erreferentzia. Beheko muturrean ataza ez zorrotzak daude. Hauetan, hizkuntza sinplea da eta aktibitateak esfortzu kognitibo baxua suposatzen die ikasleei, hala nola, ulertzea eta informazio objetiboa ematea gai ezagun bati buruz. Beste muturrean, aktibitateak egiteko erabiltzen den hizkuntza konplexua da, adibidez; alderatu, egiaztatu, eta abar. (Cummins, 1983)

Hala ere, Cumminsen eredua aldatu egin zen, ikasleen beharrei egokituta. Eredu berri horretan, aldamiajeak garrantzia hartzen du eta behean ikusi dezakegun gezia ikusiz, bigarren hizkuntzako ikasleek egiten duten aurreratzeak ikusi ahal ditugu. Horretaz gain, koadranteen ordena aldatu zen, aurreratze prozesuari hobeto egokitzeko. (ABC izango da, ABD izan beharrean). Behean daukagun eredua Coelhori (2013) dagokio:



Bigarren hizkuntza ikasten ari diren ikasleentzako instrukzioa A koadrantetik hasi behar izango da, aldamiaje maximoa emanaz, aktibitate interesgarrietan parte hartu ahal izateko, baina beti ere kontuan izanik kognitiboki oso zorrotzak ez direla izango: Hizkuntza funtzionala, input ulergarria, feedback positiboa, eta abar. (Coelho, 2015)

Aurreko guztia kontuan hartuta, esan dezakegu bigarren hizkuntzaren jabekuntzak arrakasta gehiago izaten duela lehenengo hizkuntza guztiz garatuta dagoenean. Adibidez, irakurtzen, idazten, laburpenak egiten, testu tipologia, morfologia eta inferentziak egiteko abilitatea izaten dute. Honek BICS (Basic Interpersonal Communicative Skills) eta CALPekin (Cognitive Academic Language Proficiency) zerikusia dute. BICS, eguneroko eta hizketaldiko hizkuntzari egiten dio erreferentzia eta CALP, berriz, hizkuntza akademikoaz dihardu. CALP ezin izango dute bereganatu ez bada lantzen behar den bezala, eta horrek, eskola porrota eragingo du, baina, hizkuntzarekiko motibazioa eta esposizioa badago, gerta daiteke. BICS, aldiz, denbora tarte txikian bereganatuko dute (Cummins, 1981).

Aditu askok adierazten dute ikasleek beraien ama hizkuntza erabiltzeari uzten badiote, H2an guztizko garapena eduki baino lehen, ez H1ean, ez H2an ez dutela izango gaitasun linguistiko egokirik.

Ostera, hizkuntza bat baino gehiago garatu duten ikasleek, trebetasun kognitiboak garatzeko aukera izaten dute. Elebidunak diren programetan, errendimendu akademikoaren tasa altuagoak ageri izan dira, soilik H2an eskolatzen direnekin konparatuz. (Dekeyser, 2000)

Izan ere, abantaila kognitibo gehiago izaten dituzte bi hizkuntzak ondo menperatzen dakitenen eta soilik hizkuntza bat menperatzen dutenen artean. Lehenengoak, hobeak izaten dira problemen ebazketan, kreatibitate gehiago dute eta jarrera toleranteak izaten dituzte (Genesee, 2008). Programa elebidun horien artean, azkeneko produktua, H2an, hitzun natiboen maila bera izaten da.

Irakaslearen kasuan, ikasleak animatzeko estrategiak pentsatu beharko lituzke, ikasle hauen H1ean, komenigarria denean, jabekuntza prozesuari laguntzeko. Horrekin batera, Cummins-ek (1981) aipatzen duen bezala, ikasle elebidunak garatu ahal izango dute pentsaerari dagokion malgutasun gehiago, izan ere, informazioa bi hizkuntza ezberdinetatik prozesatzen baitute.

Garrantzitsua da aipatzea ikasleak *elebidun orekatuak* izan behar direla, hau da, garatu behar dutela beraien adinetara egokitzen den konpetentzia finko bat bi hizkuntzetan.

Horrela, hizkuntza biak ematen dituzten onuraz baliatu ahal izango dira. (Oinarrizko Hizkuntza Curriculum, 2015)

Colin Baker (2007), elebitasun maila ezberdinak bereizten duen 'hiru solairuko etxe' bat egin zuen, metafora bezala.

Hasteko, hasierako solairuan, ez H1ean ez H2an kompetentzia maila egokia ez duten ikasleak daude. Hau gertatzen da H1a baztertzen dutenean eta H2a ikasten hasten direnean, baina H2an gainerako ikasleengandik hainbat urteetako atzerapena dutenei gertatzen zaie. Hau gertatzen denean, elebitasun kenzailea gertatzen dela esaten da.

Bigarren solairuan, bi hizkuntzak ezagutzen dituzten ikasleak kokatzen dira. Solairu horretan egotea ez da mesedegarriak ezta lehentagarria izaten. Hauen kasua izaten da nagusiak diren ikasleak H1 ondo garatuta dutenak, eskolara joaten direnean eta H1an daukaten informazio guztia transferentzia bezala erabiltzen dute H2a ikasteko.

Azkeneko solairuan, elebidun orekatuak daude; bi hizkuntzetan ezaguera bera garatu duten ikasleak. Hauek izango dira malgutasun kognitibo gehien izango duten ikasleak eta elebitasunaren abantailak jasango dituztenak.

Aipatutako guztiagatik, aniztasun linguistikoa sustatzea eta baloratzea, elebakarrak diren pertsonei motibatuko lieke bestelako hizkuntzak ikastera. Beraz, esan beharra dago, eskolak H1en aniztasunaz baliatu beharko lukela, sormenezko giro politik sortzeko aukera izango dutelako.

### **3. HELBURUAK**

Behin aztertutako guztia jakinik, testuinguru ezagun batera bideratuko da nire behaketa eta horren ondorioz proposamena. Testuinguruari dagokionez, Vitoria-Gasteizko paisaia kokatzen da lehen aipatutako auzi kultural eta linguistikoa. Euskal Herrian ikusitako datuek plazaratzen dute etorkinen kopurua altua dela eta urteak pasa ahala handitzen joango dela. Horregatik beragatik, erantzun eraginkor eta erreal bat eman behar zaio eta horretarako Vitoria-Gasteizko errealitatea ezagutu behar izango da, esparru ezberdinetan, hain zuzen.

Hasteko, aipatu beharra dago Euskal Herrian hizkuntza paisaia aberatsa dugula eta orain inoiz baino gehiago eskola inklusibo eta eleanitzaren alde apustu sendoa egiten ari dela. Horrek, euskara eta gaztelania, eta ikastola batzuetan arabiera eta portugesa, eskaintzeak ekarri du baina gainerako hizkuntza minorizatuek ez dute aipamenik izaten

ikastetxe eta ikastola euskaldunen egunerokotasunean, nahiz eta Heziberri (2020) dekretuan aipamena egin horiei.

### **3.1. HELBURU OROKORRAK**

Helburu orokorrak finkatzeko Heziberri 2020 dekretuan ama hizkuntzari buruzko aipamenak aztertzea izan da lehenengo pausoa. Horretan, 'Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia' bere baitan hartzen du bostgarren osagaien 'Gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko' (Heziberri 2020, 59.orrialdea). Horregatik, ama hizkuntzari garrantzia ematea funtsezko osagai moduan aurkezten da, integrazio egoerak sustatuz eta hizkuntzen garrantzia goraipatuz oinarritzko konpetentziak lortzeko.

Horretarako eta lehen aipatu den bezala, gurera etortzen diren etorkinen egoera inklusio egoera izateko eta beraien ama hizkuntzari garrantzia emateko helburuarekin burutuko da ikerketa hau, ikusitako efektu positiboak, hizkuntzak bereganatzeari dagokionez, oinarri izanik.

### **3.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK**

Eleaniztasunaren trataera gela barruan behatzeko asmoz, lehenik eta behin testuinguru jakin baten behaketa orokorra egin beharra dago. Horretarako nire Practicumetan izandako esperientziak aztertu dira eta hiru agente ezberdinei elkarrizketa egin zaie testuinguru ezberdinetan ama hizkuntzaren trataeraren inguruan. Behin diagnostikoa izanda, proposamen bat egin da, ahuleziak behin identifikatuta daudelarik, hauei erantzuna emateko.

#### **Diagnostikoa**

- **Behaketa:** Behaketa, lehen esan bezala urte hauetan zehar izandako Practicumetan egin da. Ncllc School eta IPI Sansomendi aukeratu dira testuinguru ezberdinak dituzten eskolak direlako. Bi ikastetxe hauek Vitoria-Gasteizen kokatzen dira, hizkuntza paisaia erdalduna duen hiri batean, hain zuzen.
- **Elkarrizketak:** Elkarrizketak berriz, hiru agente ezberdinei egin zaizkie: Santa María Marianistas ikastetxeko irakasle bati, Ramón Bajo ikastetxean Practicum IIIa egiten ari den ikasle bati eta BERAKAH elkartean boluntario bezala lan egiten duen emakume bati.

Hauek aukeratzeko arrazoia, hain testuinguru ezberdina duten ikastetxeak edo, BERAKAH-ren kasuan, elkartea, izanik, bertan ama hizkuntzaren trataeraren inguruan antzematen diren ahuleziak hautemateko eta horiei erantzuna emateko izan da.

### **Proposamena**

Proposamena burutzeko, hizkuntza ezberdinei errefortzu positiboa eman behar zaien ala ez galderan oinarria du, izan ere, diagnostikoa behin jorratuta izanik, testuinguruaren araberako jarduera batzuk sortu dira hauteman diren gabeziak gainditu ahal izateko.

## **4. METODOA**

### **4.1. PARTE-HARTZAILEAK ETA TESTUINGURUA**

Ikerketa honen testuingurua Vitoria-Gasteizen kokatzen da. Ikerketa oso bat izateko Gasteizko hainbat zona aukeratu ditut. Alde batetik, Practicumak egindako eskoletan behaketa egin nuen, IPI Sansomendi eta NClic School.

IPI Sansomendi Gasteizen Sansomendi auzoan kokatuta dagoen ikastetxe publiko bat da. Ikastetxean B ereduak nagusi, euskara eta gaztelania irakaste hizkuntzak direla. Bertan, praktikak burutu nituen Lehen Hezkuntzako 5. mailan. Ikasgelan eta eskola osoan aniztasun handia zegoen, izan ere, klasean 16 ikasle zeuden eta horietatik ama hizkuntza ezberdinak aurkitu ahal nituen: flamenkoa, ingelesa, frantsesa eta gaztelania, hain zuzen. Ikastetxeari dagokionez, hain zen anitza ikaslegoa kulturartekotasunari garrantzi handia ematen ziotela.

NClic Schoolari dagokionez, Gasteizko Paseo de las Universidades kalean kokatuta dagoen ikastetxe kontzertatu bat da. Ikastetxe hirueleduna da eta, bere izenak esaten duen bezala, hiru hizkuntzak lantzen eta ikasten dituzte; euskara, gaztelania eta ingelesa. Haur Hezkuntzan sartzen diren ume guztiak ingelesezko murgiltze programan sartzen dira; hau da, hiru urtez soilik ingelesa izango dute transmisio hizkuntza moduan. Bertan, aniztasuna eskasa da, hau da, ikasleen gehiengoa gasteiztarrak dira eta ama hizkuntza moduan gaztelania dute. Nire praktikak Lehen Hezkuntzako 1. mailan burutu nituen.

Bestalde, nire behaketaren barruan parte hartu dute beste bi eskolak: Santa María Marianistas ikastetxea eta Ramon Bajo ikastetxea.

Marianistas ikastetxea NClic ikastetxearen antzeko testuingurua dauka, hau da, ikastetxe kontzertatua da eta bertan ikaslegoaren gehiengoa gasteiztarra da eta gaztelania du ama hizkuntzat. Ramon Bajoren kasuan, alde zaharrean kokatuta dagoen

ikastetxe publikoa da eta bertan, Sansomendi moduan, aniztasuna eta kulturartekotasuna egunerokotasunean finkatuta dauden baloreak dira.

Horretaz gain, BERAKAH erakundearen ere behaketa egin da. BERAKAH elkarte solidario bat da non hainbat proiektu egiten diren batez ere bazterketaren kontra eta kulturartekotasunaren alde. Elkarte honetan herrialde anitzetako atzerritarrak parte hartzen dute, batez ere babesaren edota laguntzaren bila. Bertan, umeei dagozkien proiektuei buruz ikertzeko aukera egon da.

## 4.2. TRESNAK

Lan honetan erabiliko ditudan tresnak bi taldeetan sailkatu behar dira. Lehenik eta behin diagnostikoa behatuko da. Bertan, behaketan zer eta nola begiratu den azaltzen da errubrika baten bidez eta elkarrizketak, non galderak eta elkarrizketatuen identitatea agertzen den eta hauek aukeratzearen zergatia ere. Esku-hartzea burutzeko aipatutako guztiaz baliatu naiz.

### DIAGNOSTIKORAKO TRESNAK

- Behaketa: Behaketaren arduraduna ni izan naiz. Horretarako, galdera batzuen bidez burutu nuen. Galderak, ikasle eta irakasleetan behatuta, hauek izan dira:
  - Aniztasuna badago?
  - Zeintzuk dira ikasgelan dauden H1ak?
  - Zer hizkuntzei ematen zaie garrantzia gelan?
  - Zer nolako jarrera daukate hizkuntzekiko?
  - Ama hizkuntzari garrantzia ematen diote?
  - Zerbait egiten da H1ak ikasgelan/ikastetxean presentzia izateko?
- Elkarrizketa: Elkarrizketak testuinguru ezberdinetako 3 agenteri egin zaizkie. Lehena, Marianistas ikastetxean lan egiten duen irakasle bati egin zaio, irakasle moduan ikastetxe horretan gertatzen denaren ikuspuntua behatzeko. Bigarrena, Ramón Bajo ikastetxean praktiketan egon den azken urteko ikasle bati egin zaio, testuinguru horretan gertatzen dena plazaratu dezan, eta, azkenik, BERAKAH erakundearen boluntariora egiten duen boluntario bati egin zaio, ikuspuntu sakon bat izateko asmoz. 3 agenteei galdera berdinak egin zitzaizkien. Galdera horietan, harrera proiektuei buruz, etorkinei hizkuntza ezberdinetan ematen dieten inputari buruz eta ikasleen ama hizkuntzari buruz galdetzen zaie, batez ere.

- Proposamena: Jorratutako proposamenerako, lehen plazaratutako helburu orokor eta espezifikoekin lotura egin zen, honen barruan behaketa eta elkarrizketak egonda. Proposamenerako propio diren helburuak ariketa ezberdinen bidez jorratuko dira. Aipatu beharra dago jarduera bakoitzak helburu anitz izango dituela, hau da, ez da soilik jarraituko helburu bat ariketa batekin.

### **4.3. PROZEDURA**

Jarraitutako prozedura ordena baten barruan egin da. Hasteko, behaketa prozesua jorratu da. Behin ikastetxeak aukeratuta, burututako Practicum txostenak erabili izan dira, bertan behaketa espezifikoa eta sakona dagoela.

Elkarrizketen kasuan, hasieratik hiru galdera izan dira abiapuntu: nori egingo zaizkio elkarrizketak? Zer galdetuko zaie? Eta zertarako galdetuko zaie galdera horiek eta ez beste batzuk?. Horretarako lehen aipatutako hiru agente ezberdinekin bildu nintzen eta elkarrizketa egiteko baimena jaso nuen. Hori eta gero, pertsona bakoitzarekin elkarrizketa egiteko modua adostu zen. Irakasleak nirekin bildu eta ahoz egitea nahiago izan zuen, boluntarioa eta praktiketako ikaslea idatziz egin nahi zuten bitartean. Elkarrizketak egin eta gero, erantzun mamitsuenak proposamena gauzatzeko erabili ziren.

Proposamena gauzatzeko, elkarrizketatik eta behaketatik abiatuta indarguneak eta gabeziak ebaluatu dira eta horiei helduz, curriculumak uzten duen eta komenigarria ikusi den proposamena egin da, bi taldeetan banatuta: Bata, gelan egin daitekenarekin eta bestea, irakasleak berak egin dezakenarekin. Azkenik, hausnarketa egin da, aipatutako guztia behatu eta ebaluatu eta gero, gaur egun eskoletan ikasleen H1ari ematen zaion garrantziaz eta daukan presentziaz gogoeta egiteko.

## **5. EMAITZAK**

Atal honen barruan, esku-hartzearen eta diagnostikoaren bidez lortutako emaitzak plazaratuko dira. Hauek behatuko dira jarduera bakoitzarentzat proposatutako helburuak bete diren ala ez jakiteko.

### **5.1. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK**

Diagnostikoaren emaitzak bi ataletan sailkatzen dira, lehenengoa behaketa da, non bi Practicum ezberdinetan bizitako esperientziak aztertzen diren eta bigarrena, hiru



agenteei egindako elkarrizketak, ama hizkuntza ezberdinei ematen zaien trataerari buruzko informazioa aztertzen dutenak dira. Hiru agente horiek, lehen aipatu den bezala, irakasle bat, boluntario bat eta praktiketako ikasle bat izan dira.

Behaketa: Honen barruan eta eleaniztasunaren trataerari dagokionez Practicumetan bizitako hainbat praktika aztertu eta nabarmendu dira.

- **IPI Sansomendi:** Gasteizen dauden ikasle aniztasun handienetarikoa duten ikastetxea da. Bertan ikasleen H1aren gehiengoak gaztelania da baina badaude bestelako H1, hala nola urdua, frantsesa, arabiera, errumaniera, portugesa eta Afrikako bestelako hizkuntza minorizatu batzuk. Nahiz eta, ikusi bezala, aniztasuna handia den, ikasgelan eta ikastetxean zehar H1ei ez zaie garrantzirik ematen, protagonismoa gaztelaniak eta euskarak dute. Zailtasun handiak ikusi ahal ziren hizkuntzak bereganatzerako orduan, batez ere ingelesari dagokionez. Ikastetxe osoko ikasleen notak eta oharrak ikustean antzematen zen ingelesarekiko motibazio falta. Aniztasunari erantzuna emateko orduan, esan beharra dago irakasle guztiak bazekitela ikasleen jatorria, baita hitz egiten zuten ama hizkuntza zein zen ere. Gurasoekin harreman estua izaten saiatzen ziren irakasleak, eskolako sartzera eta ateratzea momentuetan familiekin hizketan geratuz (batzuekin), praktika hauek gaztelaniaz eginez. Irakasleen artean euskara entzuten zen gehienbat, honen erabilera sutsua sustatuz.

Hizkuntzen trataera ezberdinei dagokionez, euskara klaseetan errutina bisualak erabiltzen zituzten oinarrizko ekintzekin, hala nola komunera joateko eskaria egitea, mesedez eskatzeko, barkamena eskatzeko eta txanela irakasgaien ikasitako kontzeptu edo izen ezberdinak ipintzeko. Ingelesari dagokionez, koadernoan kopia egitea erabiltzen zuten estrategia bezala, zenbakiak, hitzak... kopiatuz.

H1en presentziak ikasgela kanpoan geratzen ziren, ikastetxera sartzera eskolako hizkuntza guztietan *ongi etorri* kartel baten bidez. Horrez aparte, H1ei so egiten zitzairen praktika ez zen antzeman.

- **Ncllc School:** Ikastetxe honetan aniztasuna ez zen ezaugarri erakusleatariko bat, izan ere ikasleen gehiengoaren H1a gaztelania da, baina egon badaude, H1a ezberdina duten umeak, hala nola frantsesa, ingelesa eta Ameriketako beste gaztelania batzuk.

Hizkuntza eredu hirueleduna da, baina eskolan presentzia gehien duen hizkuntza, gelatik at, gaztelania da. Irakasle bakoitzak bere hizkuntzan egiten die umeei, baina errieta botatzeko orduan edota azalpen bat berriro emateko orduan, beti gaztelaniara jotzen dute, batez ere euskaraz ematen diren klaseetan. Irakasleen artean ere gaztelania erabiltzen da komunikatzeko, bai gela barruan, bai patioan, eta gainerako langileekin ere gaztelania erabiltzen da; atezaintzarekin, jantokiko begiraleekin, zuzendariarekin... guztiekin. Gurasoekin ere gaztelania erabiltzen da, bai bilerak egiteko orduan, bai agendan notatxoren bat apuntatzeko orduan. Aipatzekoa da ikasleek gelatik at irakasleei zuzentzeko erabiltzen duten hizkuntza gaztelania dela beti, baita beren artean komunikatzeko ere.

Metodologia berritzailea erabiltzen da ingeleseko irakasgaietan ingelesa sustatzerako orduan, hala nola esperimenduak, bilaketa autonomia, proiektuak, etab. Euskaraz berriz, errutinak erabiltzen dira: eguraldia, egutegia, otoitzak... egunero errepikatuz.

Bestalde, gaztelania, ingelesa eta euskararen erabilpena, eskolaz kanpo, murriztua da nahiz eta batzuk hauekiko interesa pizten saiatu etxean, gero aipatuko diren ekintza dinamiko ezberdinen bitartez. Ume gehienek etxean marrazki bizidunak eta ipuinak ingelesez edota gaztelaniaz ikusten dituzte, baina, eskolaz kanpoko ekintzei dagokionez, musika, esaterako, gaztelaniaz ematen da. Euskara sustatzeko, irakasleak irakurketak bidaltzen dizkie etxerako, eta marrazki bizidunak, musika eta abar euskaraz entzuteko gomendatzen zaie gurasoei.

H1en presentziari, gaztelania ez zen beste H1ten ebidentziarik ez zen aurkitu. Gaztelania ezberdinei dagokionez, irakasleak umeak zuzentzen zituen, hizkerak moldatzeko nahiez baina ikastetxean zehar eta gela barruan bestelako hizkuntzei erreferentziarik ez zitzaien egiten.

Elkarrizketak: Elkarrizketak egin ondoren, agente ezberdinek ikuspuntu berdina zutela aipatu beharra dago. Esate baterako, H1ak mantentzeari dagokionez, hirurak ados zeuden garrantzitsua zela hauek mantentzea, baita ikastetxe ezberdinen eta elkartearen barruan H1ei garrantzirik ematen ez zaielako ideiarekin. (*Elkarrizketetan gehiago sakondu nahian, ikus eranskinak 1*)

- 1) Irakaslea:** Santa María Marianistasen egiten du lan, ikastetxe kontzertatu hirueledun batean, hain zuzen. Galderetatik atera den informazio garrantzitsuena aniztasunari eta aniztasunaren trataerari dagokio. Aipatzen du ikastetxearen barruan aniztasun handia dagoela, izan ere, etortzen diren umeen H1en

dibertsitatea handia dela aipatzen du. Honen trataerari buruz aipatzen du garrantzirik ez zaiola ematen eta ikastetxean sartzeko orduan, harrera plan batean sartzen direla, batez ere euskara eta gaztelania ikasteko. Familiei euskara klaseak eskaintzen zaizkiela ikastetxetik aipatzen du, baita H1a bazterzea errore bat dela bestelako hizkuntzak ikasteko ere. Horrez gain, H1en garrantzi ezari dagokionez eta honen trataerari buruz, ondarea eta kultura mantentzeko etxetik egin beharreko gauza bezala ikusten du, eskolan zaitasunez kabida duelako.

**2) Boluntarioa:** Berakah elkarte gasteiztarrean lan egiten du. Elkarte hau, beraren esanetan, etorri berriak diren familien beharrak asetzeko eta, beste gauza askoren artean, laguntza akademikoa ematen duen erakundea da. Argi dauka gaur egun Gasteizen aniztasuna goieneko une batean dagoela eta hauei erantzuteko beharrak eskasak direla aipatzen du. H1 garrantzia ematen diote erakundeetan, izan ere, langileek hizkuntza ezberdinak dakizkitez eta hauen errefortzua haien ama hizkuntzan dauden kartel ezberdinekin egiten dute. Familientzat ere hizkuntza klaseak daude, ordutegi malgua daukatenak. H1ari baztertzeari dagokionez, oso argi dauka hizkuntzak mantentzeko baliabide gehiago egon behar direla garapen kognitiboarentzat oso positiboa delako.

**3) Praktiketako ikaslea:** Gasteizko alde zaharrean kokatuta dagoen Ramon Bajo ikastetxean praktikaldia burutu duen ikasleari elkarrizketa egin zaio. Horretan, aniztasun handia daukan ikastetxea dela aipatzen du. Ikasleen familiekin ekintza ugari egiten dira eta beti kontaktuan egoten dira ikastetxeak familiak eta familiak ikastetxea ezagutu dezaten. H1ari dagokionez, garrantzirik ez zaiola ematen aipatzen du. Batzuetan irakasleak ekintzaren bat antolatzen du familiekin haien H1a protagonista dutenak baina honen inguruan ghattizazioa gertatzen ez den heinean H1aren mantentzea defendatzen du, boluntarioa bezala, garapen kognitiboari so eginez.

## **5.2. DISEINUA**

Lan hau hasierako behaketan sumatutako gabezietan oinarritzen da, hau da, aurreko atalean ikusitako galderen erantzunetatik, practicumetan behatu ahal izan dudana eta baita marko teorikoan aipatu diren hainbat praktika edota ideietatik abiatu da. Esate baterako, H1ari egiten zaion trataera ez dela txarra izaten, ez dagoelako, izan ere, nahiz

eta aniztasuna egon, hizkuntza berdinei ematen zaie garrantzia: euskara, gaztelania eta ingelesa, nahiz eta H1ak onura positiboak dakarrela frogatuta egon, bai linguistikoki bai kognitiboki. Horregatik, ikasle guztien H1ak errespetatu eta balioa eman behar zaie hainbat arrazoiengatik:

1. Cumminsek (1983) sakoneko eta azaleko gaitasunak daudela defendatzen du. Sakoneko gaitasunetan hizkuntza guztiek komunean dituzten elementuak eta ezaugarriak daude eta azaleko gaitasunetan berriz, hizkuntza batetik bestera aldatzen diren elementuak eta ezaugarriak egiten dio erreferentzia. Beraz, teoria honetan aipatzen duen bezala arrazoi psikolinguistikoengatik, onurak suposatzen dituelako ikasleengan.
2. Giza Eskubideen barruan jasotzen den bezala ikasle guztiek beraien H1 erabiltzeko eskubidea dutelako.
3. Identitate kulturala gorde dezaten ikasle guztiek, asimilazionismoa ukatuz.

Beraz, nik sortutako diseinua dago jarraian, bakoitzaren azalpen batekin. Klasean egiteko hainbat ekintza txiki dira, baina curriculumak oztopatu gabe egin daitezkeenak. Helburuen atalean aurki daitezkeen jomugekin lotura daukatenak, baita diagnostikoan behatutakoarekin ere.

Hauetan, bi alderdi desberdinak dira, bat gela barruan jorratu daitezkeen ariketekin eta bestea irakasleak berak jorratu ahal dituen ariketekin.

### **5.2.1. GELAN EGITEKO ARIKETAK**

#### **KARTELAK**

Hasteko, gelan egiteko hainbat jarraibide eta ariketa planteatuko dira. Lehenik eta behin, Sansomendi ikastetxean ikusitako kartelen ideia berritzea izan da. Kartelak ikastetxearen hall-ean ipiniko dira eta gela bakoitzean beste bat. Bertan, *ongi etorri* hizkuntza guztietan jarriko du, eta familien interakzioa behar izango da, hizkuntza hauen grafiak eta itzulpenak egiteko, batez ere. Familien interakzioarako, eskolan bertan tutoretza ordu batean egin ahalko zen, familiei gonbidapena etxeetara bidali eta gero kontaktuan ipiniz egun bat adosteko eta ideia aurrera eramateko.

Kartelen diseinuari dagokionez, hizkuntza guztiak letra mota eta tamaina berdinetan ipiniko dira, hizkuntza guztiei estatus eta garrantzia bera emateko. (*Karteletan gehiago sakondu nahian, ikus eranskinak 2*)

### GELAKO HIZKUNTZAK

Idea horrek hurrengoarekin ere lotura estua dauka, izan ere, kartel horretan ipintzen diren hizkuntza guztiak gelako hizkuntzak izango direlako, eta horretan datza ideia hau, ikasleen ama hizkuntza guztiak gelako hizkuntzak kontsideratuko dira eta gutxienez, balioa emateko, *kaixo, agur eta eskerrik asko* esaten jakitea hizkuntza guzti horietan sustatuko da, garrantzia, balioespena eta presentzia izateko.

Honetarako, lehenik eta behin, klasean zenbat hizkuntza dakizkiten galdetuko da. Atera diren hizkuntza guztiak lehen aipatutako karteletan ipintzeaz gain, beste kartel handi bat egingo da bertan hizkuntza guztiak ipiniz. Behin hizkuntza guztiak ipinita daudela, gaztelania, euskara eta ingelesa ez diren beste hizkuntza guztiak dakizkiten ikasleak aterako dira klase osoaren aurrean eta, lehen aipatu bezala, *kaixo, agur eta eskerrik asko* nola esaten den bere ama hizkuntzan esango du. Prozesu hau errepikatuko da astero, horrela, kurtso bukaerarako ikasle guztiek gelako hizkuntza guztietan hiru hitz horiek esaten jakingo dute.

Irakasleak honekin jokatu dezake, esate baterako, egun bakoitzean klasera sartzera eta ateratzerakoan gelako hizkuntza ezberdin batekin agurtuko dute, adibidez.

### MUSIKA ETA LITERATURA

Horrez gain, gelan ere musika eta literatura aldetik hainbat zeregin egin ahal dira. Alde batetik, musika orduetan edota musika ikasleak lanean dauden bitarteko euskarri gisa erabiltzen denean, giro lasaia edo alaia lortu nahi denerako musika hizkuntza ezberdinetan ipintzea aipatzen da. Musika zeinu kulturala eta identitatea goraiatzeko duen tresna oso ona da eta hori erabili ahal izango litzateke ume guztiek bestelako ikaskide guztien kulturetara hurbiltzeko. Honen adibidea, *Maite Zaitut – Pirritx eta Porrotx* kanta euskaraz, hainbat hizkuntzataraz itzuli dena, ikasgelan ipintzea baliabide baliagarri moduan erabili daiteke. Kasu honetan, kanta arabieraz aurki dezakegu. (*Abestiaren link-rako, ikus eranskinak 3*)

Bestalde, ikasgelan dagoen ipuinen txokoan edota, txoko hau ikasgelan ez badute, eskolako liburutegian hizkuntza ezberdinetan egongo diren ipuinak egotea proposatzen da. Honek, ikasle guztien ama hizkuntzen ikasketa bermatzen du, ortografia, grafia, estiloa, etb. Ikasiz eta batez ere, beraien hizkuntzari balioa emanez.

Horretarako, klasean 'KLASEKO KOADERNOA' deituko zaion koaderno pasatu ahal da ikasleen artean beraien honi buruzko iradokizunak ipintzeko, hau da, beraien gustoko duten abestien izenak, ipuinen izenburuak, etab. Irakasleak astero koaderno begiratuko du iradokizunak apuntatzeko eta bertan ipintzen dituzten abesti eta ipuinak eskuratzeko.

### TAILERRAK

Gelan egiteko ere tailer ezberdinak proposatu egin dira. Ume guztien izenak beste grafia batean idaztea izan daiteke ariketa posible bat, klasean, lehen aipatu den bezala, giro kultur anitza eskainiz.

Honetarako, lehen zikloan dauden ikasleentzat zaila izan daitekeen ariketa da, beraz, familien laguntza ere eskatu daiteke, etxean ere beraien ama hizkuntzaren grafia mantentzeko eta erabiltzeko, beraien identitatearen zati bat bezala.

### TXOKOAK

Tailerrekin lotuta, txokoen ideia ere plazaratu da. Txoko hauetan, kultura eta hizkuntza ezberdinetako pertsonaia ospetsuak landu ahal dira eta honen bidez, ikusi ahal izango da, kultura eta hizkuntza guztietan egon direla eta daudela pertsonaia asko mundua leku hobe bat bihurtzen saiatu direnak, beraz, ariketa hau aurreiritziak eta topikoak baztertzeko erreminta ahaltzua izango da. Honen adibidea pertsonaia hauek izan daiteke:

MAHATMA GHANDI	Politikaria. Indian jaioa.
NELSON MANDELA	Politikaria. Hegoafrikan jaioa.
PLATON	Filosofoa. Grezian jaioa.
BEETHOVEN	Musikagilea. Alemanian jaioa.
SHAQUILLE O'NEAL	Saskibaloj jokalaria. Musulmana.
ALBERT EINSTEIN	Fisikaria. Judutarra.
FRIDA KAHLO	Margolaria. Judutarra.
MALALA YOUSAFZAI	Aktibista. Pakistanen jaioa.

### 5.2.2. IRAKASLEEN ALDETIK

Beste alde batetik, irakasleen aldetik egin daitezkeen ekintzak plazaratuko dira.

#### SARTU HIZKUNTZAK GELAN

Lehenik eta behin, klasean, ahal den neurrian hizkuntzak sartu, hau da, hitz berriak agertzen direnean, beste hizkuntza batean zer esan nahi duten bilatu, galdetu ama hizkuntza hori daukaten ikasleei, etb.

Hau oso erreminta ona izan daiteke ama hizkuntza ezberdinak dituzten ikasleek protagonistak sentitzeko eta haien hizkuntzaz harro egoteko.

#### MAILEGUAK

Gaur egun, gaztelaniaz eta ingelesez, batez ere, erabiltzen ditugun hitz asko arabiar jatorria dute, beste jatorri askoren artean. Irakasleak gaztelania edota ingeleseko klaseetan hitz ezberdinak agertzean jatorria bilatu ahal dute gela osoaren laguntzarekin.

Astero, arbelean 'asteko hitzak' izenburuaren azpian, aste horretan bilatutako hitz ezberdinen jatorriak ipini ahal dira, adibidez, '*Almohada* → *Arabiar jatorria*'.

#### PROIEKTUAK

Horrez gain, irakasgai ezberdinetan hizkuntzen egoerari buruzko proiektuak egitea proposatuko da, horrela, hizkuntza paisaiak aztertuko dira eta errealitatearen isla zuzena izango dute, momentu hau beraien hizkuntza goraiatzeko erabiliz eta beste ikasleak beraien kulturaz jabetzeko gonbidapena egiteko oso erreminta ona izan daiteke.

Proiektu hauek edota eskolan egiten diren bestelako proiektuak, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez burutuko dituzte baina beti beraien ama hizkuntzan zati bat egiteko aukera izanik (zati hau itzuli ahal izango dute euskarara irakasleak ebaluatu dezan). Horrekin, familiak gonbidatu ahal izango dituzte erakusketara eta ikastetxea-familiak lotura indartu ahal izango da. (Coelho, 2013)

## BALORATU

Horrekin batera, ikasleek errefortzu positiboa jasotzea bermatuko da, elebiduna edota eleanitza izatea goraipatuz klasean. Eleanitzak izango diren umeak nortzuk diren jakiteko, matematikako klaseetan estatistika lantzeko momentuetan klaseko hizkuntzak aztertu eta inkestak egitea posiblea izango litzateke, ateratzen dituzten emaitzetatik portzentaiak ateraz eta lehen aipatutako hizkuntza ezberdinen proiektu horietarako erabiliz, esate baterako. (Coelho, 2013)

## HARRERA PLANAK

Azkenik, elkarrizketetan behatutako harrera plan simple eta etenei erreparatuz, klasetik bertatik harrera plan bat burutzea proposatzen da. Harrera plan hau klasean etorri berri den ikaslearentzat lagun bat izendatzean datza. Lagun honek, bere hizkuntza jakingo duena, edo ez, lagunduko dio itzulpenekin, ikastetxea erakusten, lagunak egiten, etb.

Proposamen hauek urtean zehar egiteko diseinatuta daude, kurtso guztietarako eta ikasle mota guztientzat baliagarriak dira.

Ikusi dezakegunez, Heziberri 2020 txostenean aipatzen diren irakasgai desberdinetan oinarritu egin da, bakoitzean irakasgaien lortu beharreko helburuak moldatu gabe bat etortzeko eta elkarlanean aritzeko.

Horrekin batera, familiekin komunikazioa oso garrantzitsua izan behar da. Gurasoei aipatu behar zaie oso garrantzitsua dela etxean H1a mantentzea, arriskua dagoelako hizkuntza ahazteaz.

Horretarako, haien ama hizkuntzan alfabetatzea sustatu behar da, hau da, idazten diren hizkuntzetan irakurmena eta idazketa garatu behar dute lehen aipatutako puntu guztiak betetzeko.

## **6. ONDORIOAK ETA HOBEEKUNTZAK**

Prosezu guztiaren ondoren, eleaniztasunaren trataeraren inguruan lortutako emaitzak atal honetan ebaluatuko dira. Behaketatik hasita, diagnostikoa eta proposamenaren inguruan ikusitako onurak eta gabeziak aztertuko dira. Beste alde batetik, lan hau burutzeko egin den prosezua ere ebaluatuko da, zer ikasi den aipatuz.



Diagnostikoari erreparatuz, behatu den lehen gauza espazio fisikoa izan da. Emaitzetan adierazten den bezala, bai Sansomendi ikastetxea, bai Ncllc School izan dira aukeratutako ikastetxeak eleaniztasunari zer nolako trataera ematen zaion behatzeko. Hasteko, Sansomendi eskolan, nahiz eta aniztasun handia dagoen ikastetxea izan, behatu egin da bakarrik *ongi etorri* kartela hizkuntza ezberdinetan ageri zela. Aipatu beharra dago kartel hori urtero berdina dela, hau da, ez dela berritzen. Horrek ikasle berrientzat eta ikasle ohiei oharkabean pasatzea eragiten die, bestelako kartel ezberdinekin bat eginez eta garrantzia galduz.

Ncllc Schoolen berriz, ikastetxean dagoen aniztasun ezagatik, ama hizkuntza ezberdinen trataeraren edota garrantziaren errealtatea ez dago eta ingelesez eta euskaraz kartelak izan ezik, bestelako hizkuntzetan dauden idazkirik edota kartelik ez da ageri. Gaztelania ezberdinak dituzten ikasleei zuzentzea izaten da eskolaren kontaktu handiena hiru horiek ez diren bestelako hizkuntzekin eta hori, gainera, errefortzu negatiboa izanik pairatzen dutenentzat, beraien ama hizkuntza gutxieztuz eta haiengan lotsa eraginez.

Bietan, ikasgela barruan ikasle ezberdinen ama hizkuntzez hitz bat ere ez ez da esaten eta hauek ailegatzen diren momentutik hizkuntza eta kultura berri batera azkar moldatzea eskatzen zaie, beraien identitatearen alderdi askori uko egitea eraginez, hala nola fonetika, izen ezberdinak, etab.

Beste alde batetik, egindako elkarrizketei dagokienez, hainbat ondorio atera daitezke. Lehenengo, hainbat arlotan ikuspegi berdina dutela ondorioztatu da, nahiz eta eskola ezberdinetako eta lanpostu ezberdinetako pertsonak izan. Argi daukate ama hizkuntzaren presentzia ez dela inondik agertzen, batez ere Marianistas eta Ramón Bajo ikastetxean, nahiz eta azken honetan ekintza ezberdinak proposatzen direla aipatzen duen, (ikasle guztien ama hizkuntzak bermatzeko, batez ere) oso gutxitan egiten direla ere onartzen du. Berakah elkartean berriz, errelitate honi buruz kontzientziatuta daudela antzeman da, boluntarioa aipatu duen moduan hizkuntza ezberdinak dakizkiten boluntarioak elkartean egonda, eta hauen bidez, haien kulturetara elkarpen atsegina eginez.

Gainera, hiru elkarrizketetan harrera plana edota protokoloa badagoela ikus daiteke, baina beti euskara eta gaztelania batez ere ikasteko asmoarekin. Horrek suposatzen du umea klasetik irtetzea eta eduki gramatikoak bermatzea, betiere bere ikaskideengandik aldenuz fisikoki eta emozionalki, izan ere, horrela, ikasle etorri berrien eta besteen artean elkarbanatuko duten ordu kopurua oso murrizta izango da. Argi dago inklusioa sustatzeko, etorri berriek eskolan jorratzen diren hizkuntzetan trebatu behar direla, bai

erlazio pertsonaletarako bai helduak izaterako orduan lan mundurako, baina beti beraien identitatea eta hizkuntza zapaldu gabe.

Horrez gain, elkarrizketetan ere ikusi ahal izan da ikasleen H1a mantentzeko eta garatzerako orduan, ghetizazioa sustatzearen beldur direla baina orokorrean hizkuntza mantentzearen alde agertzen dira. Ematen dituzten arrazoiaren artean, aipatzen dute zenbat eta hizkuntza gehiago jakin orduan eta beste hizkuntza bat ikasteko erraztasuna izango dutela. Baieztapen hau, marko teorikoan jasotzen den bezala, arrazoi kognitiboengatik egia dela esan daiteke, Cummins-en elkarmenpekotasunaren teoriari helduz. Horrekin batera, ikasle guztien kultura eta ondareaz harro egoteko baliabide potente baten moduan ikusten dute, hau da, identitatea mantentzeagatik. Ildo beretik jarraituz, lotura pedagogikoez at, lotura afektiboa lortu ahal dela gure ama hizkuntzaren bitartez defendatzen dute.

Honekin batera, familiak agertzen dira. Familiak, askotan, umeak baino zailtasun handiagoak izaten dituzte hizkuntza berriak bereganatzeko orduan, Lennenberger-en ustetan (1975), hizkuntzak ikasteko aro kritikoa pubertaroan amaitzen delako. Horregatik familientzako hainbat baliabide martxan jartzen dira erakunde eta ikastetxe ezberdinetatik, elkarrizketetan ikusi dugun bezala. Baliabide hauek beti bideratuta egoten dira familiak bertako hizkuntza ikasteari, hala nola, hizkuntza klaseak. Hauek familien ama hizkuntzari ez diote erreferentziarik egiten, ezta beraien kulturara ere, inklusioa sustatuz baina ikuspuntu bereganatzaile baten moduan. Esan beharra dago, Ramon Bajo ikastetxean gurasoekin aktibitate ugari proposatzen direla non, bertan, elkar trukea egiten den, hau da, familia berriak beraien kultura eta ohiturak plazaratzen dituzten bitartean, bertako familiak euskal kultura plazaratu ahal diete ere, biak elkar errespetatuz eta estatus berean ipiniz.

Azkenik, elkarrizketetan umeen inputari buruz galdetzen zaie. Honetan ere, ondorio moduan lehen aipatutakoak errepikatzen dira: aktibitate ugari baina beraien ama hizkuntza at utziz.

Hau guztia ikusita, eskolan modu batez edo bestez ama hizkuntzak sartzea beharrezkoa dela ikus daiteke. Agente guztiak ados daude ama hizkuntzaren garrantzia behar dela baina praktikan ez da egiten modu erraz eta inklusibo batean, Euskal Curriculumaren barruan agertzen diren hizkuntzak baztertzen ez diren bitartean, haien ama hizkuntzak ikasgela barruan presentzia izateko. Horregatik eta marko teorikoan ikusitako onura guztiak kontuan hartuta, proposamen egingarri, erraz eta inklusiboa sustatzen duena plazaratu da. Hona hemen proposamenaren laburpena:

GELAN	IRAKASLEEN ALDETIK
<p><b>KARTELAK:</b> <i>Ongi etorri</i> hizkuntza askotan jartzea. Familien parte hartzea sustatzen da honen bidez, laguntza eskatuz hauek burutzeko.</p>	<p><b>SARTU HIZKUNTZAK</b>  <b>GELAN:</b> Hitz berriak agertzen direnean, beste hizkuntza batean zer esan nahi duten bilatu, galdetu.</p>
<p><b>GURE HIZKUNTZAK:</b>  Konsideratzea gelan dauden hizkuntza guztiak gelako hizkuntzak. Ikastea <i>kaixo, agur eta eskerrik asko</i> esaten hizkuntza bakoitzean.</p>	<p><b>MAILEGUAK:</b> Maileguz hitz egitea: gaur egun erabiltzen ditugun hitz anitzek arabiar jatorria dute.</p>
<p><b>MUSIKA ETA LITERATURA:</b> Abestiak beste hizkuntzetan ikastea edota entzutea. Ipuinetako txokoan, hizkuntza ezberdinetan dauden ipuinak egotea.</p>	<p><b>PROIEKTUAK:</b>  Hizkuntzen egoeraren inguruan, egoera linguistikoak, zer egoeran dauden gelako hizkuntzak. Zati bat ama hizkuntzan egitea eta gurasoak gonbidatu proiektuaren esposaketara.  (Coelho, 2013)</p>
<p><b>TAILERRAK:</b> Ume guztien izenak beste grafia batean idaztea, klasean giro kultur anitz bat eskainiz.</p>	<p><b>BALORATU:</b> Elebiduna izatea baloratu. Zenbat hizkuntza dauden klasean aztertu eta matematiketarako inkestak egin portzentaiekin.  (Coelho, 2013)</p>
<p><b>TXOKOAK:</b> Kultura eta hizkuntza ezberdinetako pertsonaia ospetsuak landu txokoetan.</p>	<p><b>HARRERA PLANAK:</b>  Ikasle berriarentzat bere hizkuntza dakien (baldin badago) edo bere hizkuntza ez dakien <i>lagun</i> bat izendatu. Bere ardurak hauek izango dira: Itzulpenak, komunak erakustea, patiora joan...</p>

Hasteko, gelan egiteko proposaturiko ariketen ondorioak aztertuko dira. Gelan, kartelak hizkuntza bakoitzean ipintzea proposatu da, honetan familiaren parte hartzea sustatuko da, bai esanahia jakiteko orduan, bai grafia idazterako orduan. Horrekin batera, klasean dauden hizkuntzak gure hizkuntzak izatea proposatzen da, hau da, klaseko hizkuntzak ez izatea soilik gaztelania, euskara eta ingelesa, baizik eta ikasle guztien ama hizkuntzak. Horrela, aniztasuna sustatzen da eta hizkuntza guztiei balio berdina ematen zaie, bat ere ez gutxietuz. Honek sustatu ahal izango luke ikasle guztiak behintzat hizkuntza ezberdinetan 'kaixo, eskerrik asko eta agur' esaten jakitea, gainerako hizkuntzengan jakinmina piztuz.

Gainera, proposamenak, diseinuaren emaitzen atalean aipatzen den moduan, Euskal Curriculumean sartzen diren hainbat irakasgaietan ere badauka kabida, esate baterako, musikan eta literaturan. Aipatu den moduan, abesti ezberdinak aurkitu ahal dira hizkuntza ezberdinetan, honen adibidea, *maite zaitut Pirritx eta Porrotxen* abestia, ez soilik euskaraz, arabieraz ere badago eta hori klasean ipini ahal da, umeak soinua identifikatuz eta letra ezberdinak ere identifikatuz. Literaturaren arloan, irakurketa txokoan hizkuntza ezberdinetan dauden liburuak ipintzea proposatzen da. Etorri berriak diren ikasleak beraien kulturara hurbiltzen dien idazkiak aurkituko dituzte eta elkarlanean arituko dira, bestelako ikasleekin ipuinak azaltzen edota itzultzen. Horrek beraiengan sentimendu eroso eta gogobetekoak sortuko ditu. Horrez gain, tailer desberdinak proposatzea izan da ideia. Klasean txoko berdea dagoen moduan, bertan birziklapena sustatzen duen proiektua dena, ere munduko kulturak txokoa egon daiteke. Bertan, umeek beraien izena grafia ezberdinetan idazteko aukera izango dute, arabieraz, errumanieraz, errusiarraz, etb. Horretarako, ama hizkuntza horiek dakiten umeak eta haietan alfabetatuta daudenak, gainerako ikasleei lagundu ahal diete izkiak egiten. Hauek, behin eginda, klasean zehar itsatsi ahal dira, emaitzetan aipatzen den moduan, giro kultur anitz bat eskainiz. Honekin batera, klasean egiteko azken proposamena moduan txokoak egitea proposatu da. Azken hau aurrekoarekin oso lotuta dago, izan ere, munduko kulturen barruan sartu ahal izango delako, bertan, kultura, herrialde eta ama hizkuntza ezberdinetako pertsonaia ospetsuen bizitza aztertuko da eta posterrak eratzeko aukera egongo da. Horrela, ikusi ahal izango da kultura guztietatik mundua leku hobea bat bihurtzeko saiakerak egin dituzten pertsonaiak daudela, eta hauek, inspirazio iturri bihurtu ahal direla ikasle guztiengan.

Irakasleentzako proposamenari dagokionez, hizkuntza guztiak gelaren dinamikan sartzea proposatzen da, hau da, hitz berriak agertzen direnean, beste hizkuntzetan zer esan nahi duten bilatu ahal dituzte, baita maileguei buruz hitz egin. Adibidez, gaur egun erabiltzen ditugun hitz asko arabiar jatorria dutelako. Gainera, familiak elkarlanean

aritzeko ere, proiektuen gai ezberdinen proposamena plazaratu da, hau da, proiektuak egiterako orduan, munduko hizkuntzen egoerari buruzkoak jorratu daitezke, eta, horrez gain, egindako proiektuak, zati bat ikasleen ama hizkuntzan egin daitezke, bostgarren eta seigarren mailara begira, hauek ere itzuli ahal dituzte euskarara (edo dagokion hizkuntzari) eta aurkezpena egiterako orduan familiak gonbidatu ahal dituzte, beraien ama hizkuntzan egindako zatia entzuteko eta eskolatik hurbilago sentitzeko.

Horrekin batera, irakasleak ere ikasgelan baloratu behar izango du hizkuntza ezberdinak jakitea, hau da, ama hizkuntzan trebetasuna izatea eta gero euskara, gaztelania eta ingelesa ikasteak baloratu egingo du, eleaniztasuna goraipatuz. Honekin batera, matematiketan inkestak egin ahal dira ikasgelan zenbat ama hizkuntza ezberdinak dauden baloratzeko, horrela, hizkuntza guztiak plazaratzeaz gain, matematikako ariketak jorratu ahal izango dira.

Azkenik, elkarrizketetan aipatutako harrera planei zuzenduz, eskolatik markatzen diren protokoloetatik at, irakasleak bere ikasgelan etorri berriarentzat lagun bat izendatu ahal dio, hau da, gelako adiskidea izango da eta ikastetxea erakusteaz gain, berarekin jolasteko aukera izango du, baita klasean sartzeko ere, inklusioa hasieratik sustatuz.

Horrek guztiak, kurtso osoan zehar egin ahal diren ariketak izango dira, irakasle bakoitzak dagokion edo uste duen kabida eta denbora eskainiz. Honekin guztiarekin, ikasgelan giro atseginago bat sustatu ahal da, izan ere, behaketan ikusi den moduan, etorkinak askotan protagonistak txarrerako izaten dira, hau da, etorri berriak direnak klasean sartzean, hasierako egunetan ikaskide guztien zuzenketak jasotzen dituzte normalean, baita irakaslearenak ere. Horregatik, proposamen honekin etorri berriak diren umeak protagonistak onerako izango dira, autoestimua eta beraien kulturaz harro egotearen sentimenduak sortuz. Ariketa guzti hauek aniztasuna sustatzeko pentsatuak dira, baita aurreiritziak apurtzeko ere.

Hauekin, ikasleengan hizkuntza ezberdinenganako jakin-mina piztea suposatu egingo da, klasean kabida izango duten hizkuntza ezberdinetatik kultura eta hizkuntza bera aurrerantzean ikasteko jakin-mina piztuz, eta, bide batez, etorkinak jasaten duten gure kulturara egokitzeko presioa leunduko da, ikasleen arteko hartu-emanak sortuz.

Proposamen hau beharrezkoa dela uste dut gaur egungo gizartean arrazakeria ugari dagoelako eta auzi hori hasieratik tratatzeko aukera bikaina eskola delakoan nago, handik hezi ahal izango direlako etorkizuneko hiritarrak eta hauek aurreiritzirik gabeko sozietatea eraikitzeko lehengoko pausua da, baita garrantzitsuena ere. Honekin batera, ikasgelan bertan, errespetuzko eta tolerantziatzeko giroa nagusia izango da, non laguntasuna eta batasuna protagonista nagusiak izango direlarik. Hizkuntza guztien

balioa gorai patuko da eta guztien arteko berdintasuna sustatuko da, hizkuntza gutxieztuen ideia orokorra gogamenetatik aldenduz.

Bukatzeko, lehen aipatu den moduan, jarraitutako prozesu guztiaren ondorioak aztertuko dira. Horrekin hasteko, aipatu beharreko gauza gaien hautaketa izan da. Hasieratik hizkuntza ezberdinen inguruko proiektua burutu nahi nuela neukan buruan, baina ideia soilik zen. Azkenean, eta kontzeptu hain zabala izanik, zehaztu beharra zegoen, horregatik, gaien inguruan irakurtzen hasita eta beste hainbat adarretatik ibili ondoren, eleaniztasunaren trataera ikasgelan gaia aukeratu egin nuen. Behin gaia zehaztuta izanda, informazioa bilatzera ekin nion. Momentu horretan ere galduta sentitu nintzen: non bilatu, zer bilatu, balizko informazioa zein izango zen, nola adierazi... Horregatik, garrantzitsua izan zen iturri ezberdinak erabili izana, honetan batez ere liburuak eta ikerketak izan direlakoan. Aipatu beharra dago gai honen inguruan informazioa bilatzeko momentuan oso zaila izan zela iturri ezberdinak topatzea, batez ere, oso informazio gutxi dagoelako. Marko teorikoarekin iturri ezberdinen artean loturak egitea ikasi dut, zentzuzko orden eta antolaketa bat eginez eta ideia ezberdinak zuzentasunez lotuz.

Bestalde, proposamenari dagokionez, prozesu luzea eta aberasgarria izan da. Sekuentzia didaktikoak egiteko aukerarik ez zegoela ikusita, Euskal Curriculumak behatuz behin eta berriz, proposamen txikiak baina oso garrantzitsuak jorratzea pentsatu nuen. Hauek egiteko, behaketan oinarritu nintzen. Behaketa prozesua zaila suertatu zitzaidan, izan ere, soilik auzi horretan ardaztea kostatu egin zitzaidan, adarretarik behin baino gehiagotan joanez. Baina, azkenean, elkarrizketak egitearekin ere ikuspuntu zabala zein objetiboa lortu dudala esan beharra daukat. Azken hauek egiteko, hiru agente ezberdinekin solasaldian egon nintzen eta oso momentu atseginak eman zizkidaten, beraiengandik gauza asko ikasiz.

Beraz, orokorrean, ikerketa lan baten prozesua ikasteko aukera izan dut, etorkizuneko irakasle lanbiderako onuragarria gerta dakidakeena. Esan beharra dago, unibertsitateko graduan zehar horrelako lanetarako prestatzeko gutxi egin dela, beraz, hobekuntza bezala, lan hau burutzeko zenbait jarraibide, edo antzerako proiektuak sortzea proposatuko nuke, noski, modu txikiago batean, horrela, gradu amaierako lana egiteko momentuan erraztasun gehiago izatekotan, baita irakaslea izaterako orduan baliabide anitz eta fidagarriak izateko.

Azkenik eskerrak eman nahiko nituzke proiektu hau jorratzeko lagundu izan didaten guztiei, praktiketako tutoreak, lagun eta ikaskideei elkarrizketak egitekoaren

prestatasunagatik baita GrAL-eko tutoreari, argibide zuzenak eta zehatzak eman dizkidan eta proiektu honetan eskaini duen denboragatik.

## 7. BIBLIOGRAFIA

236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarten duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2015eko abenduaren 22a.

Baker, C. (1993). *Foundations of Bilingual Education and Bilingualism*. Clevedon. Multilingual Matters.

Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta UPV / EHU.

Camps, A. Guasch, O. Diversitat de Llengües a l'escola. *Didáctica de la Lengua i de la Literatura*. Num. 28. (2006)

Coelho, E., Oller, J., eta Serra, J.M. (2013). *Lenguaje y aprendizaje en el aula multilingüe. Un enfoque práctico*. Barcelona: ICE-Horsori, Universitat de Barcelona.

Coelho, E., Oller, J., eta Serra, J.M. (2015). *Una propuesta de adaptación del Marco Europeo para los ESL*. Ontario Institute for Studies in Education, Universidad de Toronto, Canadá, Departament de Psicologia, Universitat de Girona, España.

Cummins, J. (1981). Bilingualism and minority language children. *Language and literacy series*. Ontario institute, Toronto.

Cummins, J. (1983). Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües. *Infancia y aprendizaje* (21), 37-61

Dekeyser, R. (2000). *The robustness of critical period effects in second language acquisition*. USA: University of Pittsburgh. *SSLA*, 499-533

Euskal Herriko Ahotsak. (2016). 101L. Berreskuratuta:  
<http://101l.ahotsak.eus/101l-buruz/>



Eusko Jaurlaritzak, UPV-EHU. (2016). Inmigración de origen extranjero en comarcas de la CAE 2015. *Ikuspegi* (63), 1-7.

Ibáñez Orcajo, M.T., Marco Stifel, B. (1996), *Ciencia multicultural y no racista. Enfoques y estrategias para el aula*. Madrid, España: Narcea.

Lenneberg, E. (1975). *Fundamentos biológicos del lenguaje*. Madrid: Alianza editorial. Versión española de Natividad Sánchez Sáinz-Trápaga & Antonio Montesinos

Manterola, I. (2009). Gaztelania H1 eta H2ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai. In Ezeizabarrena, M.J. & Gomez, R. (eds.). Eridenen du zerzaz kontenta. Saillkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008). Bilbao: UPV/EHU. (5) 419-435.

Naciones Unidas (1948). Declaración Universal de Derechos Humanos. Berreskuratuta: <http://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights/>

Ncllc School Thinking Differently. (2018). Ncllc School. Berreskuratuta: <http://ncllc.com/ncllc-school/>

IPI Sansomendi. (2018). IPI Sansomendi. Berreskuratuta: <http://ipisansomendi.net/oferta-educativa/primaria/>

## 8. ERANSKINAK

### ERANSKINAK 1: *elkarrizketak*

#### IRAKASLEA

##### 1. *Zer eskolan egiten duzu lan?*

*Vitoria-Gasteizko Santa María Marianistas ikastetxean, hiriko erdialdean kokatuta dagoena.*

##### 2. *Protokolorik jarraitzen al da etorri berri diren umeekin?*

*Etorri berri diren umeekin egiten den lehenengo gauza orientazio departamentura kasua pasatzea izaten da, kasu ezberdinak egoten direlako. Bertan, psikologoek (LHko psikologoak LHko kasua bada) parte hartzen dute. Gero, kasua ikusita, gauza ezberdinak egiten dira, hau da, badaude irakasle batzuk soilik errefortzu linguistikoa egiteko, beste batzuk arlo akademikorako, eta abar. Horrez gain, ikastetxean aurten martxan jarri den boluntariotzan oinarritutako proiektu berri bat dago, non gizarte zerbitzu eta emakume batek eramatean duen, ikastetxeko koordinatzaile batekin, batxilergoko bigarren kurtsoko ikasleekin eta beste irakasle batzuen laguntzaz. Proiektu honek egiten duena, bai LHko, bai DBH eta batxilergoko ume etorri berriak aukera izaten dute arratsaldeetan, astean bitan, ikastetxera joateko eta bertan lehen aipatutako errefortzu linguistiko eta akademikoa jasotzeko. Aipatu beharra dago, kontuan hartzen dena, batez ere kurtsua hasita dagoenean etortzen diren umeen kasua eta kurtsua hasieratik etortzen direnen kasua desberdintzen dela. Lehenengo kasuan, kontuan hartzen da jatorria, zer hizkuntza daki(zki)ten eta beraien familiaren egoera. Gero, orientazio taldeak haien diziplina diseinatzen du plan bat, hau da, zer klasetan egongo diren, errefortzua jasoko duten.*

##### 3. *Jarrera inklusiboa sustatzen duzu klaseetan?*

*Saiatzen naiz, noski. Adibide bat jartzeko, badaukat klasean ume bat arazoak dituela batez ere hizkuntzekin, eskolan ematen diren hizkuntzen arlo guztietan. Ume honi, LHko psikologoarekin adostuta noski, moldaketa batzuk egiten dizkiogu, bai egiten ditugun fitxetan, klasean daukagun errutinetan, egiten dugun guztiaren prozesua ordenagailuaren pantailan edo arbelean ipintzen dugu, erraztasun handiagorekin jarraitu dezan klasea.*

##### 4. *Bertan, zenbat ama hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzten umek daude? Zeintzuk dira horiek?*

*Zehazki ez dakit zenbat ama hizkuntza ezberdin dauden ikastetxe osoan baina bai esan ahal dizut, pasaden urtean egin nuela errefortzu linguistikoa ikastetxera etorri berriak*

ziren sei etorkinekin. Hauek, Georgiako umea, Txinako umea Ghanako eta Pakistaneko umeak (H1a ingelesa zutenak). Horregatik, bakarrik lehen hezkuntzan dibertsitate handia dagoela ikusi dezakegu.

**5. Bigarren hizkuntza ikasteko orduan zailtasun gehiago antzeman zenituen etorkinak ziren umeengan besteetan baino?**

Ezin diot galdera honi zehazki erantzun ez dudalako bizi Gasteizko umeekin zerotik euskaraz ikastea, izan ere, ikastetxean D ereduak daukan murgiltze programari jarraitzen diolako Haur Hezkuntzatik. Bai esan dezaket desberdintasuna ikusi dudala LHko lehenengo zikloko eta azkeneko zikloko umeen artean, hau da, azkeneko zikloan hasten direnak hizkuntzak ikasten gehiago kostatzen zaie lehen zikloan hasi direnak baino. Baina, azken zikloetan dauden etorkinak lehen ziklotik hasi badira hizkuntza ikasten, bere klase kideak bezalako maila erakusten dutela esan dezaket.

**6. Zer nolako inputa ematen zaie ume horiei lana errazteko asmoz?**

Pasaden urteko adibide bat jarriko dizut. Lehen aipatu dudak bezala, pasaden urtea errefortzu linguistikoa ematen nien etorri berriak ziren umeei. Horretarako, errutinetan oinarritutako metodologia batean eta metodologia guzti horietan parte-hartzeko behar zituzten esaldiak edo hiztegia eredu bisual moduan eskaintzen genien, hitz guztiak beti idatzita eta marrazki batekin, haien esanahia jakiteko eta denbora pasa ahala poliki poliki joan ginen eredu bisual horiek hormatik kentzen. Baita ere, beraien ulermena errazteko, hiztegi erraza erabiltzen saiatzen nintzen eta batez ere abiadura motela hitz egiterako orduan ere.

**7. Zer nolako laguntza eskaintzen zitzaaien familiei hizkuntzarekiko? (Baldin badaude)**

Eskolan bertan eskaintzen da gurasoei zuzendutako euskara klase batzuk, astean bitan eta eskolako orduetatik kanpo. Baina normalean egiten dena familiaren egoera ikusita, eskolatik kanpo dauden erakunde espezializatu batzuetara bideratzea izaten da. Erakunde hauek gai hauetan eskola baino askoz gehiago jantzita daudelako.

**8. Beraien ama hizkuntzari garrantzirik ematen al zaio?**

Berez, nik esango nuke ezetz. Kontuan bai hartzen da. Irakasleek eta tutoreek badakite zein den ikasle hauen ama hizkuntza, batez ere, familiarekin harremanetan jartzeko.

**9. Zer uste duzu ama hizkuntza garatzeari eta mantentzeari buruz?**

Nire ustez garrantzitsua da umeek haien ama hizkuntza mantentzea eta garatzea, nahiz eta eskolan ez jorratu, hasteko, beraien kultura eta ondarea mantentzeko eta jarraitzeko

zenbat eta hizkuntza gehiago jakin orduan eta errazago egingo zaielako beste berri bat ikastea.

#### **10. Uste duzu umearen ama hizkuntza baztertzea bigarren hizkuntza hori ikasteko positiboa dela bigarren hizkuntza hori guztiz garatzeko?**

Hasteko ez da inoiz guztiz baztertu behar, bai etxetik bai eskolatik mantendu behar da. Kasuaren arabera gerta daiteke beraien ama hizkuntza eskolako hizkuntza proiektuaren barruan ez egotea orduan mantentze hori egin beharko litzateke bakarrik etxean eta hori zaila izan daiteke. Horientzat murgiltze programa izaten da aukera bakarra baina Latinoamerikatik etorriak badira, oraindik ere mantentze programa aukeratu ahal izango zuten.

### **BOLUNTARIOA**

#### **1. Zertan datza BERAKAH proiektua?**

BERAKAH proiektua Gasteizko bazterketa egoeran dauden pertsona talde batzuen beharrak aztertzen eta betearazten saiatzen diren erakunde desberdinak osatzen dute. Proiektu horren barruan umeen beharren inguruko kontzientzia eta ekimenak nahiko presente daude, boluntario eta pertsona desberdinen laguntzari esker. Marianistasen egiten dut lan eta eskolatik umeengan kontzientzia soziala pizten saiatzen gara proiektu horrekin elkarlanean arituz ekimen desberdinetan, esaterako Gabonetan egiten dugun kilo kanpainian.

#### **2. Protokolorik jarraitzen al da etorri berri diren umeekin?**

Etorri berri diren umeak eta haien familiak proiektuan pixkanaka integratzen dira. Astero bilera bat antolatzen da familiekin beraien beharrak eta eboluzioa aztertzeko eta horren inguruan erabakiak hartzeko, eta hori gertatzen den bitartean, umeek laguntza jasotzen dute boluntario batzuen eskutik. Batzuetan laguntza hori akademikoa da, etxeko lanak egiten dituztelako edo hizkuntzak ikasten dituztelako, baina beste batzuetan jokoak antolatzen dira, beraien aisialdirako beharra asetzeko.

#### **3. Jarrera inklusiboa sustatzen duzu klaseetan?**

Bai noski. Beti haurren beharretan oinarritzen gara beraiekiko laguntza programak antolatzeko, eta horietan gizartean inklusio ahalik eta errazena izan dezaten saiatzen gara. Ez da erraza, gizartean aldaketa bat eman behar delako haurrak seguru eta pozik sentitzeko testuinguru desberdinetan, baina horretarako formazioa eta ekitaldi desberdinak antolatzeko ditugu. Gasteizko edonor da ongi etorria gure proiektua ezagutzera. Umeekin gaudenean, erakusten diegu eskubide eta betebeharrak dituztela, eta eskubide horien artean, beraiek pertsona moduan onartu behar dituztela dago, nahiz eta batzuetan ez den errespetatzen.

**4. Bertan, zenbat ama hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzten umeak daude? Zeintzuk dira horiek?**

*Ama hizkuntza anitz dituzten umeak integratzen dira gure programetan. Komunenak frantsesa, bereberra, errumaniera eta ingelesa dira, baina beste hainbat daude.*

**5. Bigarren hizkuntza ikasteko orduan zailtasun gehiago antzeman zenituen etorkinak ziren umeengan besteetan baino?**

*Zalantzarik gabe. Batzuk eskolan beraien ama hizkuntzaz gain beste hiru hizkuntz ikasi behar dituzte, gaztelania, euskara eta ingelesa. Horiekin borrokan egotea ez da batere erraza, beraz Berakah-tik saiatzen gara umeen oinarrizko adierazpen eta ulermen gaitasunak bultzatzen, beraientzat ezezagunak diren hizkuntzak ulertzeko erremintak emateko.*

**6. Zer nolako inputa ematen zaie ume horiei lana errazteko asmoz?**

*Ume horien hizkuntza eredua inmersioa denez, hizkuntza horietan hitz egiten diegu, baina gure hitzak keinuz eta piktogramaz laguntzen. Proiektuan sartuta dauden pertsona guztiak ez dira horretan adituak, eta batzuetan ez dute formaziorik gai horren inguruan, baina helburua oso argia denez, haurren komunikazioa erraztea eta gizartean mugitzeko erremintak ematea, esaldiak eta hitzak izaten dira input nagusia osatzen dutenak. Normalean beraiak ekartzen dituzten etxekolanetan oinarrizko gara horrelakoak emateko, baina beraien beharrak eta interesak adierazteko esaldiak oso garrantzitsuak direla uste dugu.*

**7. Zer nolako laguntza eskaintzen zitzaaien familiei hizkuntzarekiko? (Baldin badaude)**

*Familiak hizkuntza kurtsoak eskaintzen dira. Nahiko ordutegi malguak dituzte, familietako kideek beste ardura batzuk dituztelako, bai lana, bai etxeko lanak... Horrez gain, paperen eta dokumentuen inguruko formazioa jasotzeko aukera dute, paper horietako hizkuntza nahiko zaila izan daitekeelako. Askotan umeek helduek baino azkarrago menderatzen dituzte hizkuntzen oinarrizko ezagutzak, eta interprete lanak egiten dituzte, baina helburua familiek ere komunikatzeko gaitasuna lortzea da.*

**8. Beraien ama hizkuntzari garrantzirik ematen al zaio?**

*Erakundearen barruan bai balioesten dira. Gurekin lan egiten duten pertsona batzuk ezagutzen dituzte hizkuntza horiek eta kartel batzuetan agertzen dira. Aurrera pauso asko geratzen zaizkigu emateko aspektu horri dagokionez, baina argi daukagu gure*

hiriko hizkuntza guztiak errespetatzea eta balioestea oinarrizkoa dela elkarbizitza inklusiboa bultzatzeko. Onartzen dut neurri gehiago jarri behar ditugula martxan helburu guztiak betetzeko.

### **9. Zer uste duzu ama hizkuntza garatzeari eta mantentzeari buruz?**

Uste dut oinarrizkoa dela ama hizkuntza garatzea eta mantentzea beste hizkuntza batzuk modu esanguratsuan kontrolatzeko, baina ez bakarrik alderdi linguistikoaren aldetik, baizik eta alderdi afektiboaren aldetik ere. Oso lotura afektibo indartsua garatzen dugu gure ama hizkuntzarekin gure identitatearen parte baita, beraz gure autoirudiaren parte garrantzitsu bat horrekin lotuta dago. Ama hizkuntza euskarri garrantzitsua da beste hizkuntza batzuk ikasteko orduan, baita gure inguruko irudi positiboa eraikitzeko ere.

### **10. Uste duzu umearen ama hizkuntza baztertzea bigarren hizkuntza hori ikasteko positiboa dela bigarren hizkuntza hori guztiz garatzeko?**

Bai, oso argi daukat oso lotuta daudela. Zerbitzu eta baliabide gehiago behar ditugu hizkuntza horiek mantentzeko eta, batez ere, garatzeko, abertastasun iturri baitira eta umeen ongizatea bermatzeko baliabide baitira.

## **PRAKTIKETAKO IKASLEA**

### **1. Zer eskolan egiten duzu lan?**

Vitoria-Gasteizeko Ramón Bajo ikastetxean, alde zaharrea kokatuta.

### **2. Protokolorik jarraitzen al da etorri berri diren umekin?**

Familiarekin biltzen gara pertsonalki ezagutu ahal izateko eta umeak ordura non ikasi duen jakiteko. Ikastetxe mailan bilera bat antolatzen da berarekin egongo diren irakasleen artean, bere informazioa partekatzeke eta erabakiak hartzeko, behar izatekotan. Umeei laguntza eskaintzen zaie, eduki eta hizkuntzari dagokienez, behar izatekotan, betiere familiarekin hitz egin ostean. Gainera, aste batzuetan zehar jarraipen zorrotzagoa egiten zaio ez bakarrik emaitzei dagokienez, baita lagunak egiten al dituen, ondo erlazionatzen den... jakiteko.

### **3. Jarrera inklusiboa sustatzen duzu klaseetan?**

Beti buruan daukadan zerbait da. Inklusibotasunaren kontra doazen ekintzak ez ditut onartzen nire klasean, eta batzuetan zaila izan arren, curriculumari egokitu behar baitgara, denbora eskaintzen diot taldekatzea, aktibitate inklusiboak... egiteari. Baita umeen artean errespetua sustatzeari, ni eredu izanik, noski.

### **4. Bertan, zenbat ama hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzten umeak daude? Zeintzuk dira horiek?**

*Ama hizkuntza desberdinetako umeak daude ikastetxe honetan. Euskara eta gaztelaniaz aparte, Arabiera, Txinatarra, Frantsesa, Ingelesa...*

**5. Bigarren hizkuntza ikasteko orduan zailtasun gehiago antzeman zenituen etorkinak ziren umeengan besteetan baino?**

*Fonetikari dagokionez, segun eta nondik datozen orduan eta errazago edo zailago aurkitzen dute hizkuntza baten nondik norakoak bereganatzea. Horregatik, ez da etorkinen eta hemen jaio direnen arteko desberdintasuna, baizik eta haien hizkuntzak bigarren hizkuntzarekin daukan antzerakotasunen asuntua. Egia da hemen jaiotako ume euskaldun batzuek euskaraz hitz egiten dutela etxean, eta horrek laguntza asko suposatzen die, beste batzuekin alderatuz.*

**6. Zer nolako inputa ematen zaie ume horiei lana errazteko asmoz?**

*Hemen hizkuntza laguntzaileak dauzkagu, eta beraiekin joaten dira lan egitera batzuetan, euskara, gaztelania eta ingeleseko ikasgaietan. Bestalde, etxean lantzeko ariketak ematen zaizkie, erritmoa azkarrago hartu ahal izateko.*

**7. Zer nolako laguntza eskaintzen zitzaien familiei hizkuntzarekiko? (Baldin badaude)**

*Irakaslearekin egiten diren bileretan, itzultzaileak deitzen ditugu ez badago elkarrekin komunikatzeko modurik. Horretaz aparte, ikastetxe honetan familiekin aktibitate ugari egiten dira, eta horrek kulturaren eta hizkuntzan integratzeko aukera itzela suposatzen du.*

**8. Beraien ama hizkuntzari garrantzirik ematen al zaio?**

*Aktibitatearen bat prestatzen badu irakasleak harrera emateko, hartzen da batzuetan. Bestela, ez asko.*

**9. Zer uste duzu ama hizkuntza garatzeari eta mantentzeari buruz?**

*Leku berri batera heltzerakoan, ghetizazioa sustatu nahi ez dugun heinean, bertako kultura eta hizkuntzak ikastea egokia eta beharrezkoa iruditzen zait. Hala ere, norberaren erroak errespetatzea, mantentzea eta gainerakoei ezagutaraztea aberasgarria eta beharrezkoa ikusten dut ere bai.*

**10. Uste duzu umearen ama hizkuntza baztertzea bigarren hizkuntza hori ikasteko positiboa dela bigarren hizkuntza hori guztiz garatzeko?**

*Ez dut uste, hizkuntzek ez diete beste hizkuntzei tokirik kentzen, alderantziz. Horregatik hizkuntzak galtzearen edo alde batera uztearen kontra nago.*

ERANSKINAK 2: kartelak

Welcome! Bienvenue!

Willkommen!

Bienvenido! Benvenuto!

Yokoso! Harshgeldiniz!

Bienvenido Salve  
Welkom Foonying Karibu  
Benvenuto Bienvenue  
yokoso Vitej  
Salve Welcome Shalom  
Willkommen Bienvenido  
Shalom Bienvenue yokoso  
Vitej Welcome Karibu  
Benvenut





**ERANSKINAK 3: *abestia***

***Maite zaitut arabieraz***

<https://soundcloud.com/alopez/pirritx-eta-porrotx-maite-zaitut-arabieraz>